

Asteko egunak

Alaitz Ruiz Espinal

DBH 1. eta 2. kurtsoak 1. saria

Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola

Pintatu nuen grisez

Astelehen buruzuri-burugorria

Bihurtu zen astelehengrisa.

Astelehengrisa:

Ezagutzen duzu Maria Luisa?

Pintatu nuen berdez

Astearte buruzuri-burugorria

Bihurtu zen astearteberde

Astearteberde:

Itsasoan ikusi nituen bi izurde.

Pintatu nuen gorriz

Asteazken buruzuri-burugorria

Bihurtu zen asteazkengorri.

Asteazkengorri:

Emaiozu muxu bat mutiko horri.

Pintatu nuen urdinez

Ostegun buruzuri-burugorria

Bihurtu zen ostegunurdin.

Ostegunurdin:

Dirua lortu nahi, baina ezin.

Pintatu nuen morez

Ostiral buruzuri-burugorria

Bihurtu zen ostiralmore.

Ostiralmore:

Hartu itzazu hainbat lore.

Pintatu nuen horiz

Larunbat buruzuri-burugorria

Bihurtu zen larunbathori.

Larunbathori:

Egia ez al da hori?

Pintatu nuen zuriz

Igande buruzuri-burugorria

Bihurtu zen igandezuri.

Igandezuri:

Gaur otsailak 4? Ba, zorionak zuri!